

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Desgaitasuna onartuta duten pertsonei banako laguntzak emateko deialdi publikoa

2020ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2020ko uztailaren 29ko bilkuran, laguntzen deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdia arautuko duten:

OINARRIAK

LEHENA. Deialdiaren xedea

Deialdi publikoa irekitzen da desgaitasuna onartuta duten pertsonei banako laguntzak emateko 2020an.

Laguntza horien xedeak dira onuradunen bizi kalitatea hobetzea, desgaitasunak haiei sortzen dizkien beharrak asetzea, eta haien autonomia, garapen pertsonala eta gizarteratzea sustatzea. Horretarako, prestazio ekonomiko bat emango zaie edo horren erabilera lagako, osorik edo partez konpentsatzeko laguntzen onuradunek desgaitasunagatik egin behar dituzten gastuak, dela ekintzaren baterako, dela laguntza produktu bat eskuratzeko, dela beharrezkoa duten zerbitzu bat jasotzeko.

BIGARRENA. Betekizunak eta aplikatu beharreko araudia

2.1 Deialdi honetako laguntzak emateko, hauexek hartuko dira kontuan: deialdi honetan ezartzen diren betekizunak eta baldintzak; Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 8ko 20/2014 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoak (GOFE) desgaitasun egoera aitortuta duten pertsonei ematen dizkieten banako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak (ALHAO, 45 zk., 2014ko apirilaren 23koa); Ezintasun maila Onartu, Aitortu eta Kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua, eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa.

2.2. Arabako Lurralde Historikoan errolatzeko eta zerga egoitza izateko betekizunak gorabehera, hau da, 20/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 8. artikuluko 2.a eta 2.f idatz zatietan finkatuak, adineko, ezindu eta mendekoen gizarteratze eta gizarte arretaren arloko Trebiñuko esparru hitzarmena garatzeko izenpetutako lankidetz hitzarmenaren indarrez, laguntza horien onuradun izan ahalko dira Trebiñuko udalerrietako batean errolatuta daudenak eskaera egin aurretik gutxienez urtebetean jarraian, zerga egoitza bertan badaukate.

2.3. "Foru dekretu arautzaileko 10. artikuluan xedatzen denaren arabera, dirulaguntza horiek jasotzeko gainditu ezin den diru sarreraren gehieneko muga finkatu da 2020ko ekitaldirako; oinarri hauen 1. eranskinean daude zehaztuta muga horren zenbatekoak.

HIRUGARRENA. Aurrekontua eta gehieneko zenbateko osoa

Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak (zerrenda 2. eranskinean dago) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2020ko ekitaldiko aurrekontuko 80203.0321.480.00.07 (Norberaren autonomiarako programak) gastu partidaren kontura ordainduko dira. Partida hori berrehun eta berrogeita bost mila euroz (245.000,00 euro) hornitu da deialdi honetarako.

LAUGARRENA. Laguntzak emateko araubidea eta ebazpen kopurua

Dirulaguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira; deialdia irekia izango da xede bakar baterako: ondoz ondoko hainbat ebazpen ematea deialdiak dirauen bitartean.

Banako dirulaguntza bat ematen duen ebazpen bakoitzean deialdi honen zazpigarren oinarriaren arabera gehieneko zenbatekoa emango zaio onuradun bakoitzari.

BOSGARRENA. Eskaerak aurkeztea

5.1. Desgaitasun egoera aitortuta duten pertsonentzako banako laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen foru dekretuan ezartzen den bezala egin behar dira eskaerak, deialdi honen 029 eranskinean dagoen eredu normalizatua erabiliz.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko epea iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2020ko irailaren 7an itxiko da, egun hori barne delarik.

5.2. Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2019ko irailaren 15ean itxiko da, egun hori barne delarik, salbu eta 6.2 oinarrian jasotako gastu lagungarrietarako, ez baitira beste eskaera batean eskatu behar.

5.3. Arreta espezializaturako laguntzak (deialdiaren 2. eranskina, 6. puntua) direla eta, eskaera bat aurkeztuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Balorazio Atal Teknikoko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren preskripzio bakoitzeko.

Bigarren eranskineko 1. epigrafean aipatzen diren laguntzetako bat eskatzen bada eta, gainera, eskatzaileak entitate pribatu, fundazio edo antzeko beste erakunde baten laguntzaren bat jasotzen badu, horren ebazpena aurkeztu beharko da laguntzaren berri jakin bezain laster, ezinbestekoa baita dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko.

5.4. Baldin eta 6.2 oinarrian jasotako gastu diruz lagungarrien kasuan, eskaerarekin batera, dirulaguntza emateko/ukatzeko ebazpenik eman ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.4 artikuluko administrazio isiltasuna egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

5.5. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Foru Ogasunari onuradunak bere zerga betebeharrak egunean dituelako egiaztagiria, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 800 eurotik beherakoa bada eta, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (ondoren 58/2004 Foru Dekretuak aldatua) ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatu beharretik salbuetsita badago. Onuradunak aurka egiten badio GOFEk dokumentazio hori eskatzeari, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa eskaerarekin batera. Onuradunak zergak beste probintzia edo autonomia erkidego batean ordaintzen baditu, egoitzaren egiaztagiria, Ogasunak emana, aurkeztu beharko du.

5.6. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Foru Ogasunari onuradunak bere zerga betebeharrak egunean dituelako egiaztagiria, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 800 eurotik beherakoa bada eta, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (ondoren 58/2004 Foru Dekretuak aldatua) ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatu beharretik salbuetsita badago. Onuradunak aurka egiten badio GOFEk dokumentazio hori eskatzeari, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa eskaerarekin batera. Onuradunak zergak beste probintzia edo autonomia erkidego batean ordaintzen baditu, egoitzaren egiaztagiria, Ogasunak emana, aurkeztu beharko du.

SEIGARRENA. Dirulaguntzarako onartuko diren gastuak

6.1. Deialdi honetako dirulaguntzarako 2. eranskinean ("Dirulaguntzarako onar daitezkeen laguntzen katalogoa eta betekizun espezifikoak") aipatzen diren gastuak onartuko dira, baldin eta 2019ko irailaren 16tik 2020ko abenduaren 30era egin badira (biak barne) eta aurreko deialdietan dirulaguntza jaso ez badute.

Arreta espezializaturako gastuen kasuan, diruz lagungarriak izango dira 2019ko irailaren 16tik 2020ko azaroaren 30era bitartean igarotako aldiaren barruan egindakoak, egun biak barne, aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso ez badute.

6.2. Deialdi honetako 2. eranskinean ("Dirulaguntzarako onar daitezkeen laguntzen katalogoa eta betekizun espezifikoak"), 1. epigrafean, aipatzen diren gastuak onartuko dira, deialdi honen babesean, diruz laguntzeko modukotzat, baldin eta 2018ko urriaren 1etik 2019ko abenduaren 30era arte egin baziren eta dirulaguntza ez emateko ebazpena eman bazitzaien, ez zelako aurkeztu beste erakunde publiko batzuen laguntza deialdien emate/ez emate ebazpena.

6.3. . Araudi honen ondorioetarako, ez dira laguntza produktutzat hartzen eta, ondorioz, ez dira lagungarriak hauek:

- laguntza produktuak instalatzeko behar diren artikuluak.
- laguntza produktuen konbinaketaz lortutako konponbideak, araudi honetan banan-banan sailkatuta badaude.
- botikak.
- osasuneko profesionalek soilik erabiltzen dituzten tresnak, osasun produktuak eta materiala, eta material ortoprotesikoak.
- konponbide ez teknikoak, hala nola laguntza pertsonala, gida-txakurrak edo ezpain irakurketa.
- jarritako gailuak eta pertsonak aurkeztutako ezintasunaren ondorioz bere egokitasuna berrmatuta ez daukatenak edo CIE 10en jasotzen ez diren patologiak direnak.

ZAZPIGARRENA. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea eta haren mugak

7.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa deialdi honen 1., 2. eta 3. eranskinetan ezartzen den moduan zehaztuko da.

7.2. Foru dekretu arautzailearen 19.5 artikuluan xedatzen denari jarraituz, oinarri hauen 3. eranskinean zehazten da laguntza mota bakoitzean emango den gehieneko zenbatekoa. Ino-laz ere ez da emango eskatutako produktuaren antzekoa den baten merkatuko batez besteko prezioa baino gehiago.

7.3 Eskatzen den jarduketa edo produkturako aurrekontu bat baino gehiago aurkeztu behar izanez gero, merkeena hartuko da erreferentzia moduan dirulaguntza kalkulatzeko. Aurrekontuan, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko dira: enpresa hornitzailearen identifikazioa, aurrekontuaren data, eskatzailearen datuak, eskatutako laguntza produktuaren ezaugarrien deskribapen zehaztua edo egindako ekintza/tratamendua (marka, eredia, kodeen arabera xehakapena, hala badagokio ...)

7.4. Bigarren eranskinetako 1., 4.b.1, 4.b.2, 5.a eta 5.c epigrafeetako gastuetarako jasotzen diren dirulaguntza publikoak eta eranskin horretako 1. epigrafeetako jarduketarako jasotzen diren dirulaguntza pribatuak kontuan edukiko dira dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, 3. eranskinean azaltzen den bezala.

7.5. Halaber, 20/2014 Foru Dekretuak 19.6 artikuluan ezartzen duen bezala, bakarka eskatzen den laguntzaren edo ekintzaren aurrekontua hogeitun (20,00) eurokoa izan behar da gutxienez.

ZORTZIGARRENA. Eskaeren balorazioa. Prozeduraren antolamendua eta instrukzioa

8.1. Ezinduen Arloko idazkaritza teknikoko zuzendariordeak dauka prozedura agintzeko eta izapidetzeko eskumena, eta berak igorriko dio ebazpen proposamena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ebazpena emateko eskumena daukan organoari.

8.2. Organo horrek ofizioz egingo ditu eskatzaileek aurkeztutako datuak argitzeko, zehazteko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

8.3. Jasotzen diren eskaera guztiak aztertzeko, balorazio batzordea eratuko da, honela osatua: Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoa, Balorazio Atal Teknikoaren arduraduna, Autonomia Pertsonaleko Zentroaren arduraduna, arloko koordinatzaile soziala eta zuzendariordetzak izendatzen dituen langileak. Batzorde horren ardurak izango dira txosten teknikoak ebaluatzea (aldeaz aurretik Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoak izendatutako teknikariek sinatutako txostenak, alegia) eta ebazpen proposamenak egitea.

BEDERATZIGARRENA. Eskaerak ebaztea

9.1. Behin aginduzko txosten teknikoak emanik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko administrazio kontseiluak, kasurako eraturako balorazio batzordeak proposaturik, eta bat etorritik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduaren 25. artikuluan xedatutakoarekin (xedapen honek onartu zuen: Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretua, apirilaren 3koa), dagozkion ebazpenak emango ditu eskatutako dirulaguntzak onartzeko edo ukatzeko, araudian ezarritakoaren arabera.

Eskaerak jasotzen direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen eman behar da ebazpena, bai eta eskatzaileei jakinarazi ere. Epealdi horretarako ez da kontuan hartuko eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik espedientea geldituta dagoen denbora.

Aurreko idatz zatian aipatzen den epealdian berriazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat hartuko da. Nolanahi ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena eman beharko du.

9.2. Ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 121 – 126 bitarteko artikuluetan xedatzen duenaren arabera.

10. HAMARGARRENA. Ordaintzeko era eta justifikazioa

10.1. Emandako zenbatekoa ordaintzeko, enpresa hornitzaileak lagundutako gastuen faktura aurkeztu beharko du aurretik, eta egiaztatuta osorik ordaindu duela, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 8ko 20/2014 Foru Dekretuaren 20. artikuluan finkatutakoaren arabera.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaila kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

10.2. Ordainketa egiaztatzeko, bide hauek onartuko dira:

- banku transferentziaren ordainagiria.
- kreditu txartelaz ordaindu izanaren ziurtagiria.
- enpresa hornitzaileak ziurtagiria, non zehaztuko diren ordaintzailea, faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data eta ordaintze modua.
- 500 eurotik beherako fakturen kasuan, faktura enpresa hornitzailearen izenpe eta zigilua-rekin, haren ordaindu izana adierazita.

Urriaren 29ko 7/2012 Legeak, iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak (BOE, 2012ko urriaren 30ekoa), 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, ezingo dira eskudirutan ordaindu indarrean dagoen araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko edo atzerriko monetan haren kontrabaliao duten eragiketak (deialdi hau onartzean 2.500 eurotan finkatuta dago). Ezartzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

10.3. Beste administrazio publiko batek zati batean lagundutako erosketen kasuan, hornitzaileari zuzenean ordainduta, beste administrazioek lagundutako zatiaren ordainketaren ziurtagiritzat hartuko da laguntzaren emakida ebazpenaren kopia; fakturaren gainerakoren ordainketa justifikatu beharko da.

10.4. Hornitzaileari zuzenean ordaintzen zaionean laguntza, nahikoa izango da justifikatzeko enpresa hornitzailearen faktura lagundutako gastuena; laguntzak zenbateko guztia hartzen ez badu, berriz, lagundu gabeko zatiaren ordainketa justifikatuko da artikulua honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

10.5. Ohiko etxebizitzan jabeen erkidegoek egiten dituzten irisgarritasun obretarako laguntzen kasuan, nahikoa izango da ordainketa justifikatzeko erkidegoko lehendakariak egindako ziurtagiria aurkeztea, adierazita laguntzaren onuradunari dagozkion kuotak eta jasota den-denak daudela ordainduta; banku ordainagiriak ere aurkeztu beharko dira, jabeak ordaindu beharreko gastuen batuketak gainditzen baditu iruzurraren aurkako araudiak eskudirutan ordaintzeko finkatutako mugak.

10.6. Gastua frogatzen duen faktura eta ordainketa frogatzen duen dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu behar dira, eskatutako laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, laguntza emateko ebazpenean bertan ezartzen den epealdian, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Ohiko etxebizitzan irisgarritasuna lortzeko laguntzak (deialdiaren 2. eranskineko 1. puntua); justifikazio agiriak 2020ko abenduaren 30erako aurkeztu behar dira.

Arreta espezializatuko tratamenduetarako laguntzei dagokienez, lehen justifikazioa aurkeztuko da, lehen justifikazio hori aurkeztu aurretik jasotako tratamenduei buruzkoa, eta gero ordutik aurrera jasotzen diren tratamenduen justifikazioak. Justifikazio partzial bakoitzak onartutako laguntza ordaintzea ekarriko du, bidezkoa izanez gero, justifikazioari dagokion zenbatekoa, alegia, deialdi honetan eta 20/2014 Dekretuan ezartzen diren mugak gainditu gabe. Justifikazio guztiak 2020ko abenduaren 15erako aurkeztu beharko dira.

b) Laguntza baten aurka errekurtsoa aurkeztu bada, errekurtsoa baiesten duen ebazpenean justifikazio agiriak aurkezteko epealdia zehaztu behar da; nolahi ere, epealdi hori ezin da izan inolaz ere hilabete baino luzeagoa ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

10.6. 10.7. Salbuespen moduan, eta balorazio batzordeak aldeko txostena emanda, emandako laguntzaren konturako aurrerakina baimendu ahal izango da. Aurrerakina laguntza eskaera eredu normalizatuan eskatu beharko da. Laguntza emateko ebazpenean bertan azalduko da konturako aurrerakina eman dela. Konturako aurrerakina justifikatzeko epea hilabetekoa izango da benetan ordaintzen den egunetik aurrera zenbatuta, salbuespen hauekin: obretarako laguntzetan abenduaren 30a izango da, eta arreta espezializaturako laguntzetan betiere 2020ko abenduaren 15a izango da.

Aurrerakin hau emateko arrazoi nahikoa eta egiaztatua egon behar da, hala nola: erositako laguntza teknikoaren edo egindako obraren zenbatekoa handiegia izatea, diru sarrerak urriak izatea, mendetasun graduaren aldaketaren ondorioz laguntza presaz eskuratu edo obra presaz egin behar izatea, besteak beste. Aurretik aurrerakina beharrezkoa denez baloratuko du eskatzailearen erreferentziako gizarte langileak, Ezinduen Arloko gizarte koordinatzaileak edo teknikari eskudunak, eta espedienteari buruzko txosten teknikoak egingo du. Azken batean, balorazio batzordeak ebartziko du konturako aurrerakina bidezkoa den ala ez.

10.8. Laguntza onuradunari edo beraren tutoreari, legezko ordezkariari edo egitatezko zain-tzaileari ordainduko zaio. Laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea onartzen bada, onuradunak edo beraren tutoreak, legezko ordezkariak edo egitatezko zain-tzaileak eskatu ahal izango du enpresa hornitzaileari zuzenean ordaintzeko; eskaera laguntza eskaera eredu normalizatuan egin behar du. Salbuespenez, eskatu ahalko zaio ordainketa hornitzaileari justifikatzeko epea amaitu baino lehen. Balorazio batzordearen aldeko irizpena ezinbestekoa izango da kasu guztietan, eskatutako ordainketa zuzena baimentzeko eta, hala behar izanez gero, beste ebazpen bat egin beharko da ordainketa zuzena baimentzeko.

HAMAİKAGARRENA. Laguntzen metaketa eta bateraezintasunen araubidea

Ematen den banako dirulaguntza baten zenbatekoa ezin da izan, bera bakarrik zein Estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak edo onuradunarentzat eskuratutako laguntzaren kostua baino gehiago.

HAMABIGARRENA. Azken klausula

Deialdi honen oinarriak honako hauetan ezartzen denaren mende egongo dira erabat: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; 20/2014 Foru Dekretua, apirilaren 8koa, Diputatuen Kontseiluarena; aplikazio orokorreko gainerako guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 29a

Gizarte Politikaren Saileko foru diputatua eta GOFEn

Administrazio Kontseiluko lehendakaria

EMILIO SOLA BALLOJERA

GOFeko Administrazio Kontseiluko idazkaria

JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS

1. Eranskina

Familiaren diru sarrerren mugak, desgaituentzako banako laguntzak jasotzeko gainditu ezin direnak, eta dirulaguntzarako onartuko den gehieneko ehunekoa, laguntza mota bakoitzean gehienez eman daitekeen zenbatekoari aplikatu beharrekoa.

	FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA		FAMILIA UNITATEA	
	KIDE 1		2 KIDE		3 KIDE		4 KIDE		5 KIDE		6 KIDE EDO GEHIAGO	
2020	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%	EUROAK	%
Diru sarrerak honaino	18.655	100	27.982	100	34.977	100	40.223	100	44.248	100	48.671	100
Diru sarrerak honaino	19.122	95	28.681	95	35.852	95	41.230	95	45.354	95	49.888	95
Diru sarrerak honaino	19.599	90	29.398	90	36.749	90	42.260	90	46.487	90	51.135	90
Diru sarrerak honaino	20.088	85	30.133	85	37.666	85	43.317	85	47.648	85	52.413	85
Diru sarrerak honaino	20.590	80	30.887	80	38.608	80	44.399	80	48.841	80	53.723	80
Diru sarrerak honaino	21.106	75	31.658	75	39.574	75	45.509	75	50.061	75	55.067	75
Diru sarrerak honaino	21.633	70	32.451	70	40.563	70	46.648	70	51.312	70	56.443	70
Diru sarrerak honaino	22.175	65	33.262	65	41.577	65	47.813	65	52.595	65	57.854	65
Diru sarrerak honaino	22.728	60	34.094	60	42.617	60	49.009	60	53.910	60	59.302	60
Diru sarrerak honaino	23.299	55	34.945	55	43.682	55	50.234	55	55.258	55	60.782	55
Diru sarrerak honaino	23.881	50	35.819	50	44.775	50	51.490	50	56.639	50	62.303	50
Diru sarrerak honaino	24.476	45	36.716	45	45.894	45	52.777	45	58.055	45	63.860	45
Diru sarrerak honaino	25.088	40	37.633	40	47.040	40	54.096	40	59.507	40	65.458	40
Diru sarrerak honaino	25.716	35	38.573	35	48.216	35	55.449	35	60.994	35	67.094	35
Diru sarrerak honaino	26.358	30	39.539	30	49.422	30	56.836	30	62.519	30	68.772	30
Diru sarrerak honaino	27.018	25	40.527	25	50.657	25	58.255	25	64.082	25	70.488	25
Diru sarrerak honaino	27.693	20	41.540	20	51.924	20	59.712	20	65.684	20	72.251	20
Diru sarrerak honaino	28.385	15	42.578	15	53.221	15	61.206	15	67.325	15	74.059	15
Diru sarrerak honaino	29.095	10	43.640	10	54.552	10	62.736	10	69.009	10	75.909	10
Diru sarrerak honaino	29.823	5	44.732	5	55.916	5	64.303	5	70.733	5	77.808	5
Muga honetatik gora	29.823	0	44.732	0	55.916	0	64.303	0	70.733	0	77.808	0

Familia unitatean eskatzaile onuradunaz gainera ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiago daukan beste pertsona bat bizi bada, familiako kideen kopuruari beste bat gehituko zaio diru sarrerren mugak aplikatzeko.

Desgaituentzako banako dirulaguntza jasotzeko gainditu ezin diren familiaren diru sarrerren taula hau ez zaie aplikatuko deialdi honen 2. eranskineko 6. idatz zatian xedatzen diren laguntzei.

2. Eranskina

Dirulaguntzarako onar daitezkeen laguntzen katalogoa eta betekizun espezifikoa

Oro har, katalogo honetan ageri diren laguntzak ezin dituzte jaso aurreko lau (4) deialdian kontzeptu beragatik eta beharizan bera asetzeko laguntzaren bat jaso dutenek, eskatzen den laguntzan beste epealdiren bat ezarri ezean.

Betekizunen artean mendetasun egoeraren baloraziorako baremoa (174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa) aplikatzearekin lotutako irizpideak badaude, jarduera negatiboa kontuan hartuko da kasu honetan: eskatzaileak laguntzarako produkturik ez badauka eta halako produktu bati esker autonomia pertsonala handiagoa izango bada.

1. Ohiko etxebizitzaren irisgarritasuna lortzeko laguntzak

Arkitektura oztopoak kentzeko eta etxearen egokitzapen funtzionalerako laguntzak subsidarioak dira beste erakunde publiko batzuek ematen dituztenekiko; beraz, halakoren bat eskatzen duten pertsonak beste erakunde publikoek beren laguntzak emateko edo ukatzeko emandako ebazpenak aurkeztu behar dituzte. Halaber, kontzeptu honetarako dirulaguntzak ematen dituen entitate pribatu bati laguntza eskatuz gero, hark dirulaguntza emateko emandako ebazpena aurkeztu behar du. Dirulaguntzak eskatzen duen pertsonak ez baditu betetzen beste dirulaguntza eskuratzeko eskubidea edukitzeko betekizunak, horren berri eman behar du zinpeko aitorten baten bidez; zinpeko aitortenak dioena teknikari eskudunek egiaztatuko dute, eta horri buruzko txostena egingo dute.

1.a) Oztopo arkitektonikoak kentzea:

Sarbideetan: Oztopoak kentzea bide publikorako sarbidean; oztopoak kentzea atarian (arrapala, altxagailua, igogailua zero kotara jaistea).

Bide publikorako sarbideetan oztopoak kentzeko laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 Errege Dekretua, III. eranskina).

Eskaileran: eskudela, eskailerak gainditzeko plataformak eta igogailuak jartzea. Eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 ED, III. eranskina).

Eskailerak gainditzeko eramangarria. Eskatzaileak gutxienez 12 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 ED, III. eranskina).

Igogailuaren instalazioa eta aldaketak: atek eta kabina aldatzea.

Igogailua ipintzeko eta bertan aldaketak egiteko laguntza jasotzeko, eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortu beharko ditu mugikortasun arazoak zehazteko baremoan (1971/1999 Errege Dekretua, III. eranskina) eta/edo, bestela, bihotzeko edo arnasbideetako gaixotasunak eragindako ehuneko 33ko ezintasun gradua edo handiagoa eduki (1971/1999 Errege Dekretua).

1.b) Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala: atek, pasabideak, leihoak, gelak, komunak aldatzea.

Etxebizitza modu funtzionalean egokitzeko laguntza teknikoaren kasuan, eskatzaileak ehuneko 33ko edo gehiagoko motor ezintasun maila (1971/1999 ED) eta muga funtzionalak aitortuta izan beharko ditu, eskaeraren xede diren aldaketak justifikatzen dituztenak. Ezintasuna psikologikoko kasuetan, eskatzaileak ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun maila izan beharko du aitortuta (1971/1999 ED) eta jokabide alterazioen ondorioz mugikortasuna konprometituta izan behar du.

Arkitektura oztopoak kentzeko eta etxearen egokitzapen funtzionalerako laguntzak eman ahal izateko, ezinbestekoa da beharizana desgaituak etxebizitza okupatu ondoren agertu izana. Kanpoan geratzen dira lehenengo okupazioan egokitutzat jotako etxebizitzetan egiteko obrak. Era berean, egin beharreko jarduketek indarrean dauden arauetan ezarritako irisgarritasun baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

Ezin dute jaso etxearen irisgarritasuna lortzeko eta etxebizitza egokitzeko obretarako laguntzarik aurreko bederatzi (9) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharrian bera asetzeko laguntzaren bat jaso dutenek, bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta medikuak besterik agindu ezean.

2. Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak

2.a) Janariak eta edariak prestatzen laguntzeko produktuak.

2.b) Jaten eta edaten laguntzeko produktuak.

2.c) Garbitzen laguntzeko produktuak.

Laguntza horiek jaso ahal izateko, eskatzaileek jarduera negatiboa aurkeztu behar dute MBBan (mendetasun egoera baloratzeko baremoan) jarduera hauen itemetarako: "jatea eta edatea" (2.b) eta "etxeko lanak egitea" (2.a eta 2.c): Bestela, ehuneko 33ko edo hori baino gehiagoko desgaitasuna izatea (1971/1999 Errege Dekretua) eta eskaeraren xede diren produktuak justifikatzen dituzten muga funtzionalak izatea aurkeztu beharko da.

3. Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak

3.a) Janzten eta eranzten laguntzeko produktuak.

3.b) Komuneko funtzioetan laguntzeko produktuak.

3.c) Garbitzen, dutxatzen eta bainatzen laguntzeko produktuak.

3.d) Manikura eta pedikura egiten laguntzeko produktuak.

3.e) Ilea zaintzen laguntzeko produktuak.

Laguntza horiek jaso ahal izateko, eskatzaileek jarduera negatiboa aurkeztu behar dute MB-Ban (mendetasun egoera baloratzeko baremoan) jarduera hauen itemetarako: "janzte" (3.a), "garbitzea" eta "beste zainketa pertsonal batzuk egitea" (3.b, 3.c, 3.d eta 3.e). Bestela, ehuneko 33ko edo hori baino gehiagoko desgaitasuna izatea (1971/1999 Errege Dekretua) eta eskaeraren xede diren produktuak justifikatzen dituzten muga funtzionalak izatea aurkeztu beharko da.

4. Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak

4.a) Ikusten laguntzeko produktuak.

4.a.1. Betaurrekoak erostea.

Urruneko betaurrekoak erosteko laguntza jasotzeko ezinbestekoa da desgaitasuna, ikusmenarekin zerikusia daukana (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 33koa edo handiagoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua).

Hurbileko betaurrekoak erosteko laguntza jasotzeko ezinbestekoa da desgaitasuna, ikusmenarekin zerikusia daukana (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua).

4.a.2. Lentillak erostea.

Erabili eta botatzeko lentillen kasuan, behin baino gehiagotan egin daiteke eskaera, berri-tzeko ezarritako epearen barruan, deialdi honen 3. eranskinean agertzen den diruz laguntzeko moduko gehieneko zenbaterara iritsi arte.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten tekniko behar da eta desgaitasuna, ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 33koa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

Betaurrekoak erosteko laguntza eta lentillak erostekoa ez dira bateragarriak, baldin eta ez badago medikuaren berriazko preskripzioa biak batera erabili beharra justifikatzen duena. Horretarako, sare publikoko oftalmologo baten txostena aurkeztu behar da.

4.a.3. Ikusten laguntzeko beste produktu batzuk. Iragazkiak, leiarrak, lupak eta teleskopioak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.a.4. Irudia handitzeko bideo sistemak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.a) ataleko laguntzarik ezin dute jaso aurreko bi (2) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharizan bera asetzeko laguntzaren bat jaso dutenek, bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta medikuak besterik agindu ezean.

4.b) Entzuten laguntzeko produktuak.

4.b.1. Audifonoak erostea, moldeak barne.

16 urtetik beherako ume batentzako audifonoa erosteko laguntza eskatuz gero, eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak dirulaguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpena aurkeztu behar du, laguntza hau subsidiarioa baita Jaurlaritzaren laguntzarekiko.

4.b.2. Audifonoak konpontzea, moldeak barne.

16 urtetik beherako ume baten audifonoa konpontzeko laguntza eskatuz gero, eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak dirulaguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpena aurkeztu behar du, laguntza hau subsidiarioa baita Jaurlaritzaren laguntzarekiko.

4.b.3. Entzuten laguntzeko produktuen osagarriak. Audio konexioak (indukzio, irrati maiztasun edo infragorritzko sistemak).

Entzuten laguntzeko produktua eskuratzeko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, komunikazio-entzute jardueretan parte hartzea mugatzen duen entzuteko eginkizunaren urritasunari dagokionez, 33koa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.b.1 eta 4.b.3 ataleko laguntzarik ezin dute jaso aurreko bi (2) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharizan bera asetzeko laguntzaren bat jaso dutenek, honako kasu honetan izan ezik: bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta medikuak besterik agintzen badu, eta egoera hori protesia egokituta zuzendu ezin bada.

4.b.2 ataleko laguntzak jasotzeko ezinbestekoa da enpresa hornitzaileak ezarritako bermealdia amaituta egotea.

4.c) Aurrez aurre komunikatzen laguntzeko produktuak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, komunikazio-produkzio jardueretan eta elkarrizketetan ahoz eta idatziz parte hartzea eragozten duen eta komunikaziorako aparatu eta teknikak erabiltzera behartzen duen urritasuna dela eta (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.d) Telefonoz deitzeko edota telefonoaren ordeko komunikazioa errazteko produktuak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, komunikazio-produkzio jardueretan eta elkarrizketetan ahoz eta idatziz parte hartzea eragozten duen eta komunikaziorako aparatu eta teknikak erabiltzera behartzen duen urritasuna dela eta, ehuneko 33koa edo handiagoa (entzumen desgaitasuna) edo ehuneko 65ekoa edo handiagoa (ikusmen desgaitasuna) izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.e) Alarma, ohar eta seinaleetarako laguntza produktuak.

4.e.1. Dei abisueterako eta alarमारako sistema.

Laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoak behar da eta, gainera, honako baldintza hauetako bat bete behar da gutxienez:

* Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa (1971/1999 Errege Dekretua), ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena).

* Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa (1971/1999 Errege Dekretua), entzumen urritasuna dela eta (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena).

Kokagailuen kasuan, erasan neurokognitiboa eta aldeko txosten teknikoak behar dira.

4.e.2- Abisu eta seinaleetarako laguntza produktuak: Buruak, likornioak, erakusleak, saka-gailuak edo kommutadoreak, euskarriak, armazoiak eta tekla blokeagailuak, besaurrea ber-matzekoak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoak behar da eta desgaitasuna, objektuak jaso eta eramateko jarduerak edota eskuaren eta besaurrearen erabilera mugatzen dituen (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.f.) Irakurtzen eta idazten laguntzeko produktuak.

4.f.1. Orri pasagailua erostea.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoak behar da eta desgaitasuna, objektuak jaso eta eramateko jarduerak edota eskuaren eta besaurrearen erabilera mugatzen dituen (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena), ehuneko 75ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua). Produktu honetarako laguntza eta ordenagailurako laguntza bateraezinak dira.

4.f.2. Kantoreak erostea.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoak behar da eta desgaitasuna, objektuak jaso eta eramateko jarduerak edota eskuaren eta besaurrearen erabilera mugatzen dituen (FNZ - Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.f.3. Braille sisteman idazteko tresnak.

Braille sisteman idazteko makinak eta sistema horretan oharak hartzeko tresna eramangarriak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoak behar da eta desgaitasuna, ikusmenaren eta horrekin zerikusia duten funtzioen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena), ehuneko 75ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

4.g) Ordenagailuak.

4.g.1. Ordenagailuak, software eta sarrera-irteera gailu arruntak barne.

Aldeko txostena eginez gero, kasu honetan eman ahal izango da laguntza: eskatzaileak ahozko hizkuntzarik ez badu edo eskuz idaztea eragozten dion desgaitasuna badauka, eta aldi berean gailu horiek erabiltzeko gaitasun nahikoa badauka.

Eskatzaileak ehuneko 65ekoa desgaitasuna edo handiagoa eduki beharko du (1971/1999 Errege Dekretua), ahozko eta idatzizko komunikazio-produkzio jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillkapena), eta beharrezkoa da, halaber, haren adimen funtzioak ordenagailua erabiltzeko egokiak izatea eta eskatzaileak ordenagailua nahiko ondo erabiltzen jakitea.

4.g.2. Software eta sarrera-irteera gailu bereziak.

Aldeko txostena eginez gero, kasu honetan eman ahal izango da laguntza: eskatzaileak ahozko hizkuntzarik ez badu edo idaztea eragozten dion desgaitasuna badauka, eta aldi berean gailu horiek erabiltzeko gaitasun nahikoa badauka.

Eskatzaileak ehuneko 65ekoa desgaitasuna edo handiagoa eduki beharko du (1971/1999 Errege Dekretua), ahozko eta idatzizko komunikazio-produkzio jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duen urritasuna dela eta (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), eta beharrezkoa da, halaber, haren adimen funtzioak ordenagailua erabiltzeko egokiak izatea eta eskatzaileak ordenagailua nahiko ondo erabiltzen jakitea.

4.h) Ingurunea kontrolatzen laguntzeko produktuak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, objektuak eraman, mugitu eta erabili behar diren jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 75ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua). Laguntzeko produktu horien xede bakarra pertsonaren autonomia sustatzea izango da; bateraezinak izango dira administrazio publiko honetatik edo beste batzuetatik helburu bererako jaso daitezkeen beste prestazio edo zerbitzu batzuekin.

5. Mugikortasun pertsonalean laguntzeko produktuak eta lekualdatzeko gaitasuna handitzeko laguntzak

5.a). Gurpil aulkiak.

Gurpil aulkia, eskuzkoa zein elektrikoa, erosteko laguntza eskatuz gero, eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak dirulaguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpena aurkeztu behar du, laguntza hau subsidiarioa baita Jaurlaritzaren laguntzarekiko.

5.a.1- Eskuzko propulsioko gurpil aulkia erostea.

Laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta, gainera, honako baldintza hauetako bat bete behar da gutxienez:

* IV. motako desgaitasuna edo handiagoa edukitzea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorrari lotua.

* Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

Ezintasuna psikologikoa baldin bada, eskatzaileak ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun maila izan beharko du aitortuta (1971/1999 ED) eta jokabide alterazioen ondorioz mugikortasuna konprometituta izan behar du, IRIZPEN C POSITIBO bidez onartutakoa; horrez gain, eskatzaileak gurpildun aulkia erabiltzeko Osakidetzaren agindua izan behar du.

Eskuzko propulsioko gurpil aulkia erosteko laguntzarik ezin dute jaso aurreko bi (2) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharrezko berari erantzuteko laguntzaren bat jaso dutenek, bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta sare publikoko mediku batek besterik agindu ezean.

5.a.2. Gurpil aulki elektrikoa erostea.

Gurpil aulki elektrikoa erosteko laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, ibiltzeko eta mugitzeko eta objektuak eraman, mugitu eta erabiltzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin eta goiko gorputz adarrekin eskuzko gurpil aulkia mugiarazteko ezintasun funtzional iraunkorarekin bat datorrena, ehuneko 75ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua). Halaber, beharrezkoa da adimen funtzioak eta ikusmen funtzioak egokiak izatea gurpil aulki elektrikoa ondo kontrolatzeko, erabiltzailea bera edo beste inor arriskuan jarri gabe.

Propultsio elektrikoko gurpil aukia erosteko laguntzarik ezin dute jaso aurreko lau (4) deialdian kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko laguntzaren bat jaso dutenek, bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta sare publikoko mediku batek besterik agindu ezean.

5.a.3. Baskulazio aukera; bateragarria 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin.

5.a.4. Eserlekua igotzeko aukera; bateragarria 5.a.2 atalekoarekin.

5.a.5. Kokots kontrolerako aukera; bateragarria 5.a.2 atalekoarekin.

5.a.6. Posizio sistemaren aukera; bateragarria 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin.

5.a.7. Zutitzeko sistemaren aukera; bateragarria 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin.

5.a.8. Gurpil aulkian dagoena lotzeko/atxikitze sistemak; bateragarria 5.a.1 eta 5.a.2 ataletakoekin.

Gurpil aukiekin bateragarriak diren aukerak emateko, produktu nagusia eskuratzeko beharrezko baldintzak bete behar dira alde aurretik; eskuzko propulsioko gurpil aukia edo propulsioko elektrikoko gurpil aukia.

Posizio, baskulazio eta zutitze sistemarako laguntza eskuratu ahal izateko, mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzeaz gainera, IV. motako ezintasuna eduki behar da, "gorputzaren posizioa aldatzeko eta mantentzeko" jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena).

5.b) Scooter-a erostea (3 edo 4 gurpilekoa).

Laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten tekniko behar da eta, gainera, honako baldintza hauetako bat bete behar da gutxienez:

* IV. motako desgaitasun gradua edo handiagoa edukitzea (1971/1999 Errege Dekretua), ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Saillapena); beharrezkoa da, halaber, adimen funtzioak eta ikusmen funtzioak egoerak izatea scooter-a ondo kontrolatzeko, erabiltzailea bera edo beste inor arriskuan jarri gabe.

* Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan gutxienez 12 puntuko irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

5.b) ataleko laguntzarik ezin dute jaso aurreko lau (4) deialdian kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko laguntzaren bat jaso dutenek, bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta sare publikoko mediku batek besterik agindu ezean.

Scooter-a, gurpil aukia elektrikoa eta handibike elektrikoa eskuratzeko laguntzak bateraezinak dira elkarrekin, eta horietako bat eskuratzen denetik bost urte igaro arte ezin izango da beste bat eskuratzeko laguntzarik jaso.

5.c) Gurpil aukia konpontzea.

Gurpil aukia, eskuzkoa zein elektrikoa, konpontzeko laguntza eskatuz gero, eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak dirulaguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpena aurkeztu behar du, laguntza hau subsidiarioa baita Jaurlaritzaren laguntzarekiko.

Gurpil aukia konpontzearen barruan sartzen da haren elementuetako edozein aldatzea berritzeko eperik gabe, betiere enpresa hornitzaileak ezarritako bermealdia amaitu bada.

5.d) Propulsioko elektrikorako gailua, eskuzko gurpil aukietarako.

Eskuzko aukiarik laguntza elektrikoa emateko tresna erosteko, zaintzaile nagusiak agiri bidez frogatu behar du laguntzarik gabe aukia mugitzea galarazten dioten muga organiko-funtzionalak dituela.

Laguntza produktu hori teknikoki bidezko joko da baldin eta pertsona desgaituak aulki elektrikoa erosteko laguntzarako eskubidea edukitzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen baditu, "aulkia erabiltzeko ikusmen edo adimen kontrol nahikoa edukitzea" izan ezik, eta agiri bidez frogatzen bada zaintzaile nagusiak muga organiko-funtzionalak dituela, gutxienez ere ehuneko 33ko desgaitasun moderatua eragiten diotenak eskuzko aulkia mugitzearekin zerikusia duten funtzioetan (1971/1999 Errege Dekretua), edo, bestela, desgaituak aulki elektrikorako eskubidea edukitzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen baditu eta zaintzaile nagusiak 70 urte edo gehiago baditu.

5.d.1. Propulzio gailu eskuzkoa edo elektrikoa, erabiltzaileak berak mugitzen duen gurpil aulkirako.

Eskuzko propulzio gailua erosteko –handbikoa barne– laguntza jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta, gainera, honako baldintza hauetako bat bete behar da gutxienez:

* Desgaitasuna, ibiltzeko eta mugitzeko jardueretan parte hartzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua), eta bat etorri behar da laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin.

* Mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan "A" irizpen positiboa jasotzea (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

Kasu bietan, pertsonak potentzia muskular nahikoa eduki beharko du besoetan eskatutako laguntzari eragiteko.

Propulzio gailu elektrikoa (handbikoa barne) jaso ahal izateko, aldeko txosten teknikoa behar da eta desgaitasuna, ibiltzeko eta mugitzeko eta objektuak eraman, mugitu eta erabiltzeko aukera mugatzen duena (Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapena), laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ezintasun iraunkorarekin bat datorrena, ehuneko 65ekoa edo handiagoa izan behar da (1971/1999 Errege Dekretua). Halaber, beharrezkoa da adimen funtzioak eta ikusmen funtzioak egokiak izatea gurpil aulki elektrikoa ondo kontrolatzeko, erabiltzailea bera edo beste inor arriskuan jarri gabe. Teknikariak uste badu eskatzaileak frogatu behar duela propulzio gailu elektrikoa kontrolatzeko gauza dela, sare publikoko mediku batek hurbileko ikusmenaz eta kanpimetriaz egindako txosten ofiziala aurkeztu beharko da.

Propulzio gailu elektrikoa edo handbikoa elektrikoa erosteko laguntzak bateraezinak dira Scooter-a eta gurpil aulki elektrikoa erostekoarekin, eta bat eskuratzen denetik lau (4) urte igaro arte ezin izango da beste bat erosteko laguntzarik jaso.

Deialdi honetan ez da dirulaguntzarik emango kirola egiteko handbikoa independente edo modularrak erosteko.

Atal honetako laguntzarik ("eskuz eragiteko gurpil aulkietarako propulzio unitateak") ezin dute jaso aurreko lau (4) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharrian bera asetzeko laguntzaren bat jaso dutenek, bien bitartean eskatzailearen egoera kliniko-funtzionala aldatu eta medikuak besterik agindu ezean.

5.e) Ibilgailuak egokitzea.

1) Gidatzeko egokitzapenak:

5.e.1. Motorrari eragiteko egokitzapenak.

5.e.2. Azeleragailurako egokitzapenak.

5.e.21. Balaztarako egokitzapenak.

5.e.3. Enbragerako eta aldagailurako egokitzapenak.

5.e.4. Esku balaztari eragiteko egokitzapenak.

5.e.5. Direkzio sistemari eragiteko egokitzapenak.

5.e.6. Bigarren mailako funtzioei eragiteko egokitzapenak.

Eskatzailearen gidabaimenean berariaz ageri diren egokitzapenetarako soilik emango da dirulaguntza, gidatzeko baimen eta lizentzietako "Batasuneko kode harmonizatuak eta kode nazionalak" (818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duena; I. eranskina) aintzat hartuta.

2) Segurtasun elementuak: uhalak, ainguraguneak, buru euskarriak:

5.e.7. Segurtasun uhalak eta arnesak erostea.

Ezintasuna psikologikoko kasuetan, eskatzaileak ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun maila izan beharko du aitortuta (1971/1999 ED) eta jokabide alterazioen ondorioz mugikortasuna konprometituta izan behar du, IRIZPEN C POSITIBO bidez onartuta.

5.e.8. Berariaz diseinatutako eserlekuak eta kuxinak erostea.

Segurtasun elementuetarako laguntzak jaso ahal izateko, mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan gutxienez 12 puntuko irizpen positiboa eduki behar da (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina).

3) Ibilgailuan sartzeko egokitzapenak: arrapalak, plataforma jasotzaileak eta ibilgailuetan sartzeko garabiak:

5.e.9. Pertsonak autoetan sartzeko garabiak erostea.

5.e.10. Gurpil aulkian autora igotzeko plataforma.

5.e.11. Arrapala tolesgarria erostea.

5.e.12. Gurpil aulkia autoaren gainean edo barruan jartzen laguntzeko produktua.

5.e.13. Gurpil aulkia autoan lotzeko ekipamendua.

5.e.14. Autoaren karrozeriaren egokitzapenak.

Ibilgailuan sartzeko egokitzapenetarako laguntzak jaso ahal izateko, mugitzeko zailtasunak zehazten dituen baremoan gutxienez 12 puntuko irizpen positiboa eduki behar da (1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskina). Ezintasuna psikologikoko kasuetan, eskatzaileak ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasun maila izan beharko du aitortuta (1971/1999 ED) eta jokabide alterazioen ondorioz mugikortasuna konprometituta izan behar du, IRIZPEN C POSITIBO bidez onartuta.

"Ibilgailuak egokitzea" izeneko atal honetako laguntzarik ezin dute jaso aurreko bederatzi (9) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko laguntzaren bat jaso dutenek, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Salbuespena: 5.e.1, 5.e.2, 5.e.3, 5.e.4, 5.e.5, 5.e.6 eta 5.d.21 ataletako laguntzarik (gidatzeko egokitzapenak) ezin dute jaso aurreko lau (4) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharizan berari erantzuteko laguntzaren bat jaso dutenek.

5.f) Gidabaimena lortzea edo birmoldatzea.

Gidabaimena lortzeko edo birmoldatzeko laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da eskatzaileak gutxienez 7 puntu lortzea 1971/1999 Errege Dekretuan garraio bide kolektiboak erabiltzeko zailtasunak finkatzeko ezarritako baremoan.

Laguntza hau behin bakarrik emango da.

5.g) Pertsonak jasotzeko, eramateko, lekualdatzeko eta atsedenerako laguntza produktuak.

5.g.1. Gurpil garabia erostea, zutitzeko garabia barne.

5.g.11 Garabi mugikorra eskuratzea pertsona bat zutik jartzeko

5.g.2. Horman, zoruan edo sabaian finkatzeko garabia erostea.

5.g.3. Lekualdatzen eta biratzen laguntzeko produktua. Lekualdatzeko diskoak, plataformak, uhalak, oholak eta eskalak, eta zutitzeko mekanismoa daukan aulki ergonomikoa.

5.g.1 eta 5.g.2 ataletako produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa edukitzea "norberaren gorputza lekualdatzeko" eragozpenengatik edota jarduera negatiboa edukitzeagatik "gorputzaren posizioa aldatzen eta mantentzen", fase guztietan, SM laguntza mailarekin, "gorputzaren grabitate zentroa aldatzea etzanda egonik edo eserita egotea" jardueran izan ezik. 5.g.3 ataleko laguntza produktuak erosteko laguntza jaso ahal izateko, ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa eduki behar da (1971/1999 Errege Dekretua).

5.g.11 apartatuko laguntza produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa edukitzea norberaren "gorputza lekualdatzeko eragozpenengatik" edota jarduera negatiboa edukitzeagatik, FP/SM laguntza mailarekin, jarduera honen zenbait egitekotan: "gorputzaren posizioa aldatzen eta mantentzea": "aulki batean eserita egotea eta zutik jartzea"; "zutik egotea eta zutik egon ondoren aulkian esertzea".

5.g.3 apartatuko laguntza produktuak erosteko laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa izatea, mugak izateagatik norberaren gorputza lekualdatzeko jardueretan parte hartzeko eta/edo jarduera negatiboa, FP/SM laguntza mailarekin, gutxienez "gorputzaren posizioa aldatu eta mantentzea" jarduerako pausoetan: "aulki batean eserita egotea eta zutik jartzea"; "zutik egotea eta zutik egon ondoren aulkian esertzea".

5.g.1, 5.g.2 eta 5.g.11 epigrafeetan jasotako produktuak erosteko gastuak ordaintzeko laguntzak bateraezinak dira, eta ezin izango dute kontzeptu horietako bat eskuratu, baldin eta aurreko produktua erosi zenetik gutxienez lau (4) deialdi igaro ez badira, salbu eta Balorazio Batzordeak behar bezala justifikatutako eta positiboki baloratutako salbuespenezko kasuetan.

5.g.4- Ohe artikulatua lagatzea edo erostea.

5.g.4.1- Koltxoia.

5.g.4.2- Koltxoiaren zorroa.

Teknikoki bidezkotzat joko da 5.g.4, 5.g.4.1 eta 5.g.4.2 apartatuetan jasotako laguntza produktuak ematea, baldin eta pertsonak, zeinentzat produktuak eskatzen baitira, gaixotasun kroniko edo neurodegeneratibo bat badute, IV. motako desgaitasun larria eragiten duena (1971/1999 ED) arintze xede den jardueraren mugaketan, hau da, ohean gorputza lekuz aldatzekoetan. Mendekotasun egoeraren aitortzea baldin badute, "gorputzaren posizioa aldatu, mantendu edo lekualdatzea" jarduerak barne hartzen dituen egitekoek jarduera negatiboa izango dute, laguntzen premia izango dutelarik, hala nola laguntza fisiko partziala, erabatekoa eta berezia".

Atal honetako laguntzarik ezin dute jaso aurreko bederatz (9) deialdietan kontzeptu beragatik eta beharrian bera asetzeko laguntzaren bat jaso dutenek, aparteko kasuetan izan ezik (apartekotasuna frogatu beharko da eta balorazio batzordeak ontzat eman beharko du).

5.g.5. Ohe artikulatuaren aukerak: jasotzeko orga, hesi, trapezio eta bestelako aukera.

5.g.51- Oherako eskudelak lagatzeko edo erosteko aukera.

Laguntzak hauek jaso ahal izateko, ezinbestekoa da, batetik, ehuneko 75ekoa desgaitasuna edo handiagoa edukitzea (1971/1999 Errege Dekretua) "gorputzaren posizioa aldatzen eta mantentzen" eragozpenak edukitzeagatik, goiko funtzio neurologikoetako erasanaren edo krisi komizial larrien ondorioz erori eta norberaren osotasuna arriskuan jar dezakeen desgaitasuna, alegia, eta bestetik, Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapeneko "gorputzaren posizioa aldatu edo mantentzea" jarduerarako laguntza fisiko erabatekoa eta berezia behar izatea.

5.g.52. Norbere kasa altxatzeko oheari lotutako barren aukera.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, ezinbestekoa da arindu nahi den desgaitasuna, "gorputzaren posizioa aldatzeko eta mantentzeko" eragozpenak, ehuneko 33koa izatea gutxienez.

5.g.53- Ohea altxatzea lagatzeko edo erosteko aukera.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, ezinbestekoa da desgaitasuna, "gorputzaren posizioa aldatzeko edo mantentzeko" eragozpenak (FNS), ehuneko 75ekoa edo handiagoa izatea (1971/1999 Errege Dekretua) eta, gainera, jarduera negatiboa izatea "gorputzaren posizioa aldatzea eta mantentzea" jarduerako fase guztietan, SM edo AE laguntza mailarekin.

6. Laguntza espezializatua

Garapenaren nahasmenduak dauzkaten edo edukitzeko arriskua duten umeentzat da, eta beharrezkoa da hala baloratu edukitzea organo eskudunak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren I. tituluko III. kapituluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek arautzen du mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; Diputatuen Kontseiluaren 50/2014 eta 58/2014 foru dekretuen bidez aldatuta dago. Beharrezkoa da, gainera, fisioterapia, logopedia edota erabateko estimulazioko zerbitzuen esku-hartzeren bat programatuta edukitzea. Honetaz, gainera, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan, Euskal Autonomia erkidegoko arreta goiztiarreko esku hartze integralari buruzkoan (EHAA, 45 zk., 2016ko martxoaren 7koa), xedatzen dena aplikatuko da.

6.1. Diruz lagundu daitezkeen zerbitzuak:

6.1.a. Arreta goiztiarra: GOFetik kanpo jasotako fisioterapia, logopedia eta estimulazio orokorreko zerbitzuak.

Arreta goiztiarreko esku hartzea diruz lagungarria izango da, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

– Gasteiztik 35 km-tara baino gehiagotara bizi bada interesduna.

– Tratamendua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Erregistro eta Ikuskaritza Zerbitzuak baimendutako erakunde batek egiten badu, salbu eta esku hartzea 2020ko otsailaren 1a baino lehen hasitako Arreta Goiztiarreko programa baten barruan hasi bada, edo tratamendu hori, hurbiltasunagatik, beste probintzia edo autonomia erkidego batean egiten bada; kasu horretan, lurralde horretan indarrean dagoen araudia beteko da, funtzionamendua baimentzeari/egiaztatzeari dagokionez.

6.1.c. Garraioa: Arreta goiztiarreko zerbitzuaren onuradunaren bizitokia arreta espezializatua eman behar den udalerrri atal honetan aipatzen denetik kanpo dagoenean. Zerbitzuaren onuradunak eta laguntzaile batek onuraduna bizi den herriaren eta arreta eman behar zaion herriaren artean egiten dituzten joan-etorrien gastuak ere kontzeptu honetan sartu ahal izango dira. Garraibide publikoa nahiz pribatua erabiltzeagatik ordainduko dira gastuak, eta doitu egingo dira zerbitzu arrazoiengatik zor diren kalte ordainen arloan indarrean den araudian ezartzen denaren arabera.

7. Bestelako laguntza bereziak eta osagarriak

Aparteko kasu batzuetan, aurreko kapituluetan ezartzen eta tipifikatzen ez diren ekintzak edo laguntza bereziak ere finantzatu ahal izango dira, aurrez aldeko txosten teknikoa eginda, eskatzailearen arretarako, sustapenerako eta gizarteratze prozesurako onuragarriak izango direla uste bada.

Katalogo honetan ez dira sartzten trebakuntza zentroaren edo lantokiaren ingurunerako berariaz bideratzen diren esku hartzeak eta laguntza produktuak, ez eta onuradunen arreta zentroetako (egoitzak eta eguneko zentroak) ekipamenduak diren laguntza produktuak ere.

Katalogo honetatik kanpo geratzen dira, halaber, erabilera eta lotutako kostuak justifikatuko dituen ebidentzia zientifikorik ez duten esku hartze edo produktu guztiak, edo OMEk argitaratutako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS-10) ageri ez diren patologien ondoriozko ezintasunak arintzea xede dutenak.

3. Eranskina

Desgaituentzako banako laguntzak, emango diren gehieneko zenbatekoak eta haien izaera

Izaerari erreparatuta, laguntza produktuak berreskuragarriak edo berreskuraezinak izan daitezke.

a) Produktu berreskuragarriak (PBG) dira hainbat pertsonak behin eta berriro erabil ditzaketenak eta leku batetik bestera eramatean garraio kostuak baizik sortzen ez dituztenak.

b) Produktu berreskuraezinak (PBE) dira pertsona erabiltzaile bakar baten onurarako direnak, edo, aparteko kasuetan, hainbat pertsonaren onurarako aldi berean, eta horren ondorioz eskualdatu ezin direnak.

Halaber, berreskuraezinak dira etxebizitzak egokitzeko obra zibilak eta laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko egin beharreko obrak.

Emango diren gehieneko zenbatekoak:

Emango diren gehieneko zenbatekoak:

1. Ohiko etxebizitzan irisgarritasuna lortzeko laguntzak.

Idatz zati honetako (1.a eta 1.b) eskaerarekin batera aurkezten diren aurrekontuak xehatuta egongo dira eta horietatik, onuradunaren eragozpen funtzionalak konpentsatzeko partidak baino ez dira kontuan edukiko; ohiko birgaikuntzarako direnak dirulaguntzarik kanpo geratuko dira.

Aurreko idatz zatian diruz lagundu daitezkeen partidatzat hartu direnak, egikaritze unitatetzat hartuko dira diruz laguntzeko moduko gehieneko aurrekontua 1.a eta 1.b idatz zatietan adierazitako moduluen bidez kalkulatu direnean.

Beste erakunde publiko batek edo entitate pribatu batek dirulaguntza bat onartuz gero atal honetako laguntzen xede berarako, horren zenbatekoa kenduko da lehen adierazitako diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontutik.

1.a) Arkitektura oztopoak kentzea:

Arkitektura oztopoak kentzeko obretan, onuradunaren partizipazio kuota baizik ez da hartuko kontuan, indarrean dagoen Jabetza Horizontalaren Legeak edo, bestela, behin betiko epaiak ezartzen duena. Obra horiek, duten izaeragatik, PBETzat joko dira, PBGTzat hartzen diren eskailerak gaunditzeko gailu eramangarriak izan ezik.

Emango den gehieneko zenbatekoaren kalkulua diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekonturen balioaren arabera egingo da, beste erakunde publiko edo pribatu batzuk emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kendu ondoren. Horrela, diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontua lortuko da, jarraian adierazitako diren moduluekin bat etorritik.

ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA		
EGIKARITZE UNITATEA	GEHIENEZKO ZENBATEKOA EUROTAN	NEURRI UNITATEA
Aldapak	800	ml
Igogailua instalatzea	15.000	Unitatea
Igogailua 0 mailara jaistea	12.000	Partaidetza kuota
Igogailuaren kabina aldatzea (kabina handitzea)	4.000	Unitatea
Igogailuaren kanpo atek aldatzea	800	Unitatea
Igogailu berria instalatzea	18.000	Partaidetza kuota
Sarrera atek	1.000	Unitatea
Ateak automatizatzea	1.500	Unitatea
Atezain automatikoa (bideo atezaina)	500	Unitatea

ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA		
EGIKARITZE UNITATEA	GEHIENEZKO ZENBATEKOA EUROTAN	NEURRI UNITATEA
Maniobra espazioak gaitzea:		
Zola irristagaitza	120	m ²
Desplazamendua / Trenkadak kentzea	80	m ²
Eskubanda eta laguntza barandak	120	ml
Eskailera igogailuen gailu mugikorra (P. Berreskuragarria)	4.000	Unitatea

1.b) Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala (PBE):

Diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontua kalkulatzeko, modulu hauek ezarriko dira:

ETXEBIZITZAREN EGOKITZAPEN FUNTZIONALA		
EGIKARITZE UNITATEA (*)	GEHIENEKO ZENBATEKOA EUROTAN	NEURRI UNITATEA
Ateak		
Ate zabukaria / ate gidariduna	900	Unitatea
Trenkadan sartutako ate gidariduna	1.300	Unitatea
Ateak automatizatzea	1.500	Unitatea
Desplazamendua / Trenkadak kentzea	80	m ²
Eskubandak/barandak	120	ml
Zola irristagaitza	120	m ²
Instalazioen erreforma		
Elektrikoa (hargune erreforma, koadro orokorra jaistea)	500	Guztira
Desplazamendua/mekanismo elektrikoak instalatzea	75	Unitatea
Gasa (hargunearen erreforma, mozketa giltzak, galdara jaistea...)	500	Guztira
Bainuontziaren ordezkari irisgarria jartzea	2.000	Unitatea
Bainuontzia jartzea	2.000	Unitatea
Konketa aldatzea	650	Unitatea
Komuna aldatzea/lekuz aldatzea	650	Unitatea
Berogailuaren erradiadorea lekuz aldatzea	300	Unitatea
Parametroak homogeneizatzea:		
Zola (irristagaitza)	120	m ²
Paretak (soilik kaltetutakoak)	80	m ²
Pareta/sabaietako pintura	20	m ²
Manpara irisgarria /laguntzakoa	1.000	Unitatea

(*) Ezarritako unitate prezioetan beharrezko lan guztiak egitea jasota dago: desmuntatzea, eraistea, hondakinak kentzea, materialak, eskulana, garraio kostuak, profesionalen ordainsariak eta zergak.

Komuneko egokitzapen funtzionalen kasuan, iturgintza instalazioen osagarriak eta erreforma (ur beltzak, ACS, hustubideak), txorrotak eta elementu guztiak muntatzea barne hartuta dago komun bakoitzerako finkatutako prezioan.

Deialdi honen onuradun izateko eskubidea daukaten pertsona bik edo gehiagok okupatutako etxebizitzaren kasuan "Ohiko etxebizitzaren irisgarritasuna lortzeko laguntzak" 1. atalean jasotako laguntza guztien batura ezingo da izan obren kopuru osoa baino handiagoa, hau da, ezingo da gainfinantzaketarik egon.

Emango den gehieneko zenbatekoaren kalkulua diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontuaren balioaren arabera egingo da, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kendu ondoren. Honela:

– Aipatutako balioa 8.000 euro edo gutxiago bada, emango den gehieneko zenbatekoa aipatutako balioraino igo ahal izango da, gehienez ere, 8.000 eurora.

– Aipatutako balioa 8.000 euro baino gehiago eta 12.000 euro edo gutxiago bada, emango den gehieneko zenbatekoa lortzeko, batuketa bat egingo da hauen artean: lehenengo 8.000 euroen ehuneko 100 eta gainerako zenbatekoaren ehuneko 75.

– Aipatutako balioa 12.000 euro baino gehiago bada eta 16.000 euro edo gutxiago, emango den gehieneko zenbatekoa lortzeko, batuketa bat egingo da hauen artean: lehenengo 8.000 euroen ehuneko 100, 8.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko zenbatekoaren ehuneko 75 eta gainerako zenbatekoaren ehuneko 50.

– Azkenik, aipatutako balioa 16.000 euro baino gehiago bada, emango den gehieneko zenbatekoa lortzeko, batuketa bat egingo da hauen artean: lehenengo 8.000 euroen ehuneko 100, 8.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko zenbatekoaren ehuneko 75, 12.001 eurotik 16.000 eurora bitarteko zenbatekoaren ehuneko 50 eta gainerako zenbatekoaren ehuneko 25.

2. Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak.

2.a) Janariak eta edariak prestatzen laguntzeko produktuak. Gehienez 130 euro/unitate.

2.b) Jaten eta edaten laguntzeko produktuak. Gehienez 50 euro/unitate.

2.c) Garbitzen laguntzeko produktuak. Gehienez 200 euro/unitate.

Oro har PBE dira, ezaugarriengatik berariaz PBGtzat katalogatzen direnak izan ezik.

3. Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak.

3.a) Janzten eta erazten laguntzeko produktuak. Gehienez 100 euro/unitate.

3.b) Komuneko funtzioetan laguntzeko produktuak. Gehienez 50 euro/unitate.

3.c) Garbitzen, dutxatzen eta bainatzen laguntzeko produktuak. Gehienez benetako kostua.

3.d) Manikura eta pedikura egiten laguntzeko produktuak. Gehienez 100 euro/unitate.

3.e) Ilea zaintzen laguntzeko produktuak. Gehienez 100 euro/unitate.

Oro har PBE dira, ezaugarriengatik berariaz PBGtzat katalogatzen direnak izan ezik.

4. Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak. Oro har PBE dira, dituzten ezaugarriengatik berariaz PBGtzat katalogatzen direnak izan ezik.

4.a) Ikusten laguntzeko produktuak (PBE).

4.b) Entzuten laguntzeko produktuak (PBE).

4.b.1. Audifonoak erostea: gehienez 1.800,00 euro audifono bakoitzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak laguntza hauetarako dirulaguntza onesten badu, diruz lagundutako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontutik deskontatuko da.

4.b.2. Audifonoak konpontzea: gehienez benetako kostua.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak laguntza hauetarako dirulaguntza onesten badu, diruz lagundutako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontutik deskontatuko da.

4.b.3. Entzuten laguntzeko produktuen osagarriak: benetako kostura arte.

4.c) Aurrez aurre komunikatzen laguntzeko produktuak (PBG): benetako kostua gehienez.

4.d) Laguntza produktuak telefonoz deitzeko edota telefonoaren ordeko komunikazioa errazteko (PBG): 300 euro unitateko gehienez.

4.e) Alarma, abisu eta seinaleetarako laguntza produktuak (PBG):

4.e.1. Dei abisuetarako eta alarmarako sistema: benetako kostua gehienez.

4.e.2. Ohar eta seinaleetarako laguntza produktuak: benetako kostua gehienez.



- 4.f) Irakurtzen eta idazten laguntzeko produktuak (PBG):
- 4.f.1. Orri pasagailuak erostea: benetako kostua gehienez.
 - 4.f.2. Kantoreak erostea: benetako kostua gehienez.
 - 4.f.3. Braille-an idazteko tresnak: benetako kostua gehienez.
- 4.g) Ordenagailuak (PBG):
- 4.g.1. Ordenagailuak, software eta sarrera-irteera gailu arruntak barne (PBG): 750 euro gehienez.
 - 4.g.2. Software eta sarrera-irteera gailu bereziak (PBG): benetako kostua gehienez.
- 4.h) Ingurunea kontrolatzen laguntzeko produktuak (PBG): benetako kostua gehienez.
5. Mugikortasun pertsonalean laguntzeko produktuak eta lekualdatzeko gaitasuna handitzeko laguntzak. Guztiak PBG, bestelakotzat jotzen direnak izan ezik.
- 5.a. Gurpil aulkiak.
- 5.a.1. Eskuzko gurpil aulkiak erostea: 2.000,00 euro gehienez.
 - 5.a.2. Gurpil aulki elektrikoak erostea: 7.500,00 euro gehienez.
 - 5.a.3. Baskulazio aukera: 1.300,00 euro gehienez.
 - 5.a.4. Eserlekua igotzeko aukera: 1.900,00 euro gehienez.
 - 5.a.5. Kokots kontroleko aukera: 2.900,00 euro gehienez.
 - 5.a.6. Posizio sistemaren aukera: gehienez 1.500,00 euro.
 - 5.a.7. Zutitzeko sistemaren aukera: 1.600,00 euro gehienez.
 - 5.a.8. Gurpil aulkian dagoena lotzeko/atxikitzeko aukera: benetako kostua gehienez.
- 5.b. Scooter-a: 2.000,00 euro gehienez.
- 5.c Gurpil aulkiaren konponketa (PBE): gehienez benetako kostua.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak gurpil aulkiak erosteko edo konpontzeko laguntza haue-tarako dirulaguntza onesten badu, diruz lagundutako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontutik deskontatuko da.
- 5.d. Eskuzko gurpil aulkia mugitzen laguntzeko sistema elektrikoa, zaintzaileei laguntzeko: 1.000,00 euro gehienez.
- 5.d.1. Propultsio gailu eskuzkoa edo elektrikoa, erabiltzaileak berak mugitzen dituen gurpil aulkietarako: 1.500,00 euro gehienez.
- 5.e. Ibilgailuak egokitzea: benetako kostua gehienez, kontzeptuen arabera muga hauek gaingaitu gabe:
- 5.e.1. Motorrari eragiteko egokitzapenak (PBE): 1.200,00 euro gehienez.
 - 5.e.2. Azeleragailua erabiltzeko egokitzapenak (PBE): 1.800,00 euro gehienez.
 - 5.e.21. Balazta erabiltzeko egokitzapenak (PBE): 800,00 euro gehienez.
 - 5.e.3. Enbragerako eta aldagailurako egokitzapenak (PBE): 1.800,00 euro gehienez.
 - 5.e.4. Esku balazta erabiltzeko egokitzapenak (PBE): 1.200,00 euro gehienez.
 - 5.e.5. Direktio sistemari eragiteko egokitzapenak (PBE): 125,00 euro gehienez.
 - 5.e.6. Bigarren mailako funtzioei eragiteko egokitzapenak (PBE): 1.600,00 euro gehienez.

- 5.e.7. Segurtasun uhalak eta arnesak (PBE): 300,00 euro gehienez.
- 5.e.8. Berariak diseinatutako eserlekuak eta kuxinak: 2.300,00 euro gehienez.
- 5.e.9. Pertsonak autoetan sartzeko garabiak: 1.600,00 euro gehienez.
- 5.e.10. Gurpil aulkian autora igotzeko plataforma: 5.000,00 euro gehienez.
- 5.e.11. Arrapala tolesgarria: 2.500,00 euro gehienez.
- 5.e.12. Gurpil aulkia autoaren gainean edo barruan jartzen laguntzeko produktua (PBE): 4.500,00 euro gehienez.
- 5.e.13. Gurpil aulkia autoan lotzeko ekipamendua (PBE): 1.300,00 euro gehienez.
- 5.e.14. Autoaren karrozeriaren egokitzapenak (PBE): 5.000,00 euro gehienez.
- 5.e. Ataleko egokitzapen guztiek barruan hartzen dituzte instalazio, garraio eta homologazio gastuak.
- 5.f. Gidabaimena lortzea edo birmoldatzea (PBE): 1.000,00 euro gehienez.
- 5.g. Pertsonak jasotzeko, eramateko, lekualdatzeko eta atsedenerako laguntza produktuak (PBG): benetako kostua gehienez, kontzeptuen arabera muga hauek gainditu gabe:
- 5.g.1. Garabi gurpilduna: benetako kostua gehienez.
- 5.g.11 Garabi mugikorra eskuratzea pertsona bat zutik jartzeko: gehienez benetako kostua.
- 5.g.2. Horman, zoruan edo sabaian finkatutako garabia: benetako kostua gehienez.
- 5.g.3. Lekualdatzen eta biratzen laguntzeko produktuak: benetako kostua gehienez.
- 5.g.4. Ohe artikulatua, produktua lagapenean ezin bada eskuratu: gehienez ere 600,00 euro.
- 5.g.4.1. Koltxoia: gehienez 300,00 euro.
- 5.g.4.2. Koltxoia zorroa: gehienez 50,00 euro.
- 5.g.5.. Ohe artikulatuaren aukerak, honako kontzeptu hauek direla eta:
- 5.g.5.1. Ohe artikulatuko osagarriak, eskudelak aukera, produktua lagapenean ezin bada eskuratu: gehienez ere 100,00 euro.
- 5.g.5.2. Ohe artikulatuaren osagarriak, norbere kasa altxatzeko barrak: 100,00 euro gehienez.
- 5.g.5.3. Ohe artikulatuko osagarriak, altxatzea aukera, produktua lagapenean ezin bada eskuratu: gehienez ere 300,00 euro.
- 5.g.4, 5.g.5.1 eta 5.g.5.3 epigrafeetako produktuak ematea deialdi hau aurkezten den egunetik aurrera premia agerrarazten duten pertsonen beharrezko elementu edo tresnak erabilera araubidean lagatzean datza. Hala ere, 2019ko irailaren 16tik deialdi hau argitaratu arte horrelakoak jaso dituzten kasuan edo ebazpena ematean ez badago produktua lagatze moduan, kontzesioa aldizkakoa ez den prestazio ekonomiko gisa hartuko da, banakako izaerarekin eta izaera finalistarekin, aipatutako artikulua eskuratzeko dagokion dirulaguntza emate aldera.
6. Arreta espezializaturako laguntzak:
- 6.1. Dirulaguntzarako onar daitezkeen zerbitzuak:
- 6.1.a) Garapenaren nahasmenduak dauzkaten edo edukitzeko arriskua duten umeen arreta goiztiarra: benetako kostua gehienez.
- 6.1.c) Garraioa:
- Garraio publikoa: benetako kostua gehienez.

Garraio pribatua: Garraiobide pribatua erabiltzen bada, EAEko administrazio publikoentzat arau orokor gisa ezarritako kilometro ordaina (0,29 euro/km) jasoko da, gehienez ere. Ez dira gastuak frogatu beharko; nahikoa izango da joan-etorriak egin direla frogatzea.

7. Beste laguntza berezi edo osagarri batzuk: gehienez benetako kostua.

Kasu horietan guztietan, ematen diren diru zenbatekoak ezin dira, inola ere, eskatutakoaren baliokide diren laguntza produktuen edo jarduketan merkatuko batez besteko prezioa baino handiagoak izan.

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p>  <p>Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<p>Ezintasuna onartuta duten pertsonentzako banakako laguntzak</p> <p style="text-align: right; font-size: 24pt;">029</p> 
--	---

DEIALDIAREN URTEA **Eskatzailearen datuak**Hurrengo hau denez: Onuraduna Legezko ordezkaria

Lehen abizena Bigarren abizena Izena

Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila

Helbidea (jakinarazpenetarako) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea

P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat

Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa

Eskatutako dirulaguntzaren onuradunaren datuak

(Eskatzailea eta onuraduna pertsona bera badira, ez bete)

Lehen abizena Bigarren abizena Izena

Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila

Helbidea (Kalea/ Plaza) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea

P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat

Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa

Laguntza honentzat **ESKATZEN DU** :

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA		
Lan etekinak eta jarduera etekinak		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
	€	
	€	
	€	
Pentsioak, sorospenak eta prestazioak		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
Alargun pentsioa	€	
Erretiro pentsioa	€	
Baliaezintasun handia	€	
KGP/GOF/MGL	€	
Beste batzuk (zehaztu)	€	

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA				
Balio higikorrak				
Deskripzioa	Hauek ditu jabetzan	Zenbatekoa/Saldoa	Etekina	Titularra
Aurrezki libretak/ Kontu korranteak		€	€	
Bonoak, zor publikoa, letrak ...		€	€	
Inbertsio funtsak...		€	€	
Akzioak/obligazioak...		€	€	
Beste batzuk (zehaztu)		€	€	
Balio higiezinak (ohiko etxebizitza, etxeak, hiri edo landa-finkak, gozamenak...)				
Mota	Deskripzioa	Katastroko balioa	Etekina	Titularra
		€	€	
		€	€	
		€	€	

Adierazten dut ez dudala beste balio higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan, ez eta Espainiako beste autonomi -erkidego batzuetan ere.

Eskualdaketak, Dohaintzak			
Deskripzioa	Data	Balioa	Hartzailea
		€	
		€	
		€	

- Agintzen dut GOFeri itzuliko dizkiodala eskatzen dudan laguntza onartu ondoren eskuratzen ditudan laguntza produktuak (III. Eranskinean berreskuratzeko modukoak izendatuta dauden produktuak).
- Eskatzen dut aurrerakina emateko, onartutako dirulaguntzaren kontura. Horrez gain, agintzen dut gastua egin izana justifikatuko dudala, deialdi bakoitzean ezartzen den epearen barruan.
- Eskatzen dut zuzenean hornitzaileari ordaintzeko emandako laguntza.

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DITUT HONAKOAK:

Eskabide honetan adierazitako datuak benetakoak direla.
Beharrezko egiaztapenak eta fitxategi publikoei kontsultak egiteko baimena ematen dudala, aitortutako datuak Administrazio Publiko eskudunen eskuetan daudenekin bat datozela ziurtatzeko.
Badakidala aurrerantzean gerta daitezkeen eta 1. eskaera honi eragin diezaieketen aldaketen berri Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari ematera behartuta nagoela, 15 egutegi-egunen epean aldaketa gertatzen den egunetik hasita.

-(n), 20 -(e)ko -ren -(e)an

Eskatzailearen sinadura

Legezko ordezkariaren sinadura*

* Eskatzaileak ez sinatzeko arrazoia

Dokumentu hau sinatuz, goian sinatzen duenak adierazten du informatuta dagoela eta **DBLO Lege Oharrean** (012. eranskina) aipatutako baimena ematen duela, bere datu pertsonalak erabil ditzan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.